



ORDESA eta MONTE PERDIDO parke nazionala

Ordesa eta Monte Perdido Parke Nazionala Pirinioetan dago, Huesca probintzian, Aragoiko Erkidego Autonomoan. Espainiako parke nazional zaharrenetakoa da, 1918an sortua. Monte Perdido mendia, 3.348 metroko altuera duena, parkearen erdigunea da. Parkea Huescatik 50 kilometro ingurura dago eta Ara ibaia parkearen bihotzetik igarotzen da, bailara ikusgarriak sortuz.

Parkeak 15.700 hektarea inguruko azalera hartzen du guztira. Horrek esan nahi du Donostiako udalerrriaren halako bi t'erdi sartzen direla bertan, edo, beste modu batean esanda, 20.000 futbol-zelai baino gehiago.

Parkeak askotariko fauna eta flora ikusteko aukera ematen du. Bertan aurki daitezke adibidez ugatzak, sarrionak, marmotak eta muturluze piriniarrak. Landarediari dagokionez, pago eta izei basoak nabarmentzen dira, baita alpetar lore koloretsuak ere, udaberrian loratzen direnak. Haien artean, babes berezia duten Pirinioetako lilipa eta errosta horia daude.

Ordesa eta Monte Perdido parkea, bestalde, bere ezaugarri geologikoengatik nabarmentzen da. Karst erako formazioak, glaziarren ekintzaren ondorioz sortutako haran zabalak eta kareharrizko mendiak dira parke honetako ikur nagusiak. Izan ere, Perdido mendiaren iparraldeko aurpegian dago Pirinioetan oraindik dauden glaziar bakanetako bat, nahiz eta astiro baina etengabe atzera egiten ari den. Parkearen egitura geologikoa Europako mendikateen historia ulertzeko ezinbesteko gunea da, kareharri hori itsasoaren hondooan metatutako sedimentuz eratutakoa baita, plaka tektonikoen arteko talkaren ondorioz altxatu zirenak, duela 35 milioi urte inguru.

Ezezagunak ziren hitzak:

KARST: Erliebe-forma bereziak eratzerakoan sortutako egitura, arroka disolbatu egiten delako (kasu honetan, kareharria).

METATU: Pilatu leku batean. Kasu honetan, adibidez, sedimentuak dira pilatzen direnak.

Azalerarekin egindako proportzionaltasun-ariketa:

Parkearen azalera=15.700 hektarea= 157 km²


-Donostiako udalerriaren azalera=61 km²

157 km² / 61 km² = 2,57. Beraz, parkea 2,5 aldiz handiagoa da gutxi gora-behera

-Futbol-zelai baten azalera 4.050 m² eta 10.800 m² artean egon behar da. Batez besteko neurria hartuz gero: $(4.050+10.800)/2 = 7.425 \text{ m}^2$.

Ordesako parkeak 15.700 hm² = 157.000.000 m² ditu.

157.000.000 m² / 7.425 m² = 21.144 Beraz, parkea 21.000 aldiz handiagoa da gutxi gorabehera, futbol-zelai batekin alderatuta.



Informazioa eskuratzeko erabili ditugun orriak:

<https://www.ordesa.net>

<https://www.parquenacionalordesa.com>

<https://www.rednaturaldearagon.com/parque-nacional-de-ordesa-y-monte-perdido/>

<https://parquesnacionales.ign.es/ordesa-y-monte-perdido>

<https://www.miteco.gob.es/es/parques-nacionales-oapn/red-parques-nacionales/parques-nacionales/ordesa/ficha-tecnica.html>